

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

ZERTAN DATZA GURE ENPRESA

Aurrera atera nahi dugun proiektua Urdaibaiko Biosfera erreserban aire librean umeentzako jarduera eta ekintzak eskaintzen ditu, hala nola, surf ikastaroak, paddel surf, kayak, bidaiak itsasontsiz, arrantza, Gynkanak, herri kirolak) Hauekin batera, ostatua ere emango die bezeroei.

GURE BEZERO POTENTZIALAK

Bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, haiek gabe ezin baitu enpresa batek luzaro iraun. Bezero-talde bat edo hainbat egon daitezke. Beren ezaugarri komunetan oinarrituta taldekatu behar ditugu, beren beharrak hobeto asetzeko. Hori esanda, Canpus honen helburua, Estatuko bezeroak erakartzea da, nahiz eta nagusiki Euskal Herrikoak izango diren eta adin tartea 7-17 urte arteko gazteak izango da. 7 urtetik behera uste dugu gazteegiak direla guk eskaintzen ditugun jarduerak egiteko eta, gainera, begirale edo zaintza gehiago exijitzen dituztelako. Bezero potentzial hauek dituzten aukeren artean asko daude baina gure inguruan ez dago gauzez egoteko aukera eskaintzen dituztenak. Gainera, bakarrik dago enpresa bat (Axiekitaldiak) egun osorako ekintzak eskaintzen dituena baina esan dugun moduan goizez bakarrik aritzen dira (9:00-14:00).

Gure udako Canpusak, tokiko jendearen eskaria, kostaldetik urrun bizi denarena eta kostaldean bizi izanda beste inguruak ezagutu eta gozatu nahi duten gazteei zuzenduta daude. Hori dela eta, esan dezakegu nitxo osatutako merkaturia dela, antzeko ezaugarriak, gustuak, ohiturak eta abar dituzten kontsumitzaileen taldea delako.

Honekin batera, guraso akoren beharrak ere asetuko dira, udan haiek lanean dauden bitartean beraien seme-alabak paraaje zoragarri batean, okupatuta, ondo zainduta eta disfrutatzen dauden bitartean.